




COVID-19 ALDIKO IRAKASLEEN TELELANARI BURUZKO TXOSTENA

CCOO irakaskuntza

2020 maiatza

TELELANA COVID-19AREN GARAIAN

AURKIBIDEA.

1	TELELANA COVID-19AREN GARAIAN.....	2
2	ZUZENDARITZA TALDEA.....	3
3	LAGUNTZA ZERBITZUAK.....	5
4	IRAKASLE ZUZENeko IRAKASLEAK.....	6
4.1	HAUR HEZKUNTZA	11
4.2	LEHEN HEZKUNTZA	13
4.3	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	15
4.4	LANBIDE HEZIKETA	18
4.5	HELDUEN HEZIKETARAKO IKASTETXEAK	22
4.6	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK	25
4.7	MUSIKA KONTSERBATORIOAK	27
4.8	ENTZUMEN ETA HIZKUNTZA.....	30
4.9	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	33
4.10	ARTE PLASTIKO ETA DISEINUKO ESKOLAK.....	35
5	ONDORIOAK.....	36


1 TELELANA COVID-19AREN GARAIA

Orain dela gutxi inkesta bat bidali genizuen telelana nola eramaten ari zineten eta irakasbide berri honek ekar zitzakeen oztopoen berri jakiteko. Gauetik goizera *on line*-ko irakasle bihurtzeagatik, sortu zaizkizuen oztopoak ez ezik, baliabideen gabeziagatik ikasleek izan dituzten arazoak ere ezagutu nahi genuen; eta, hori guztia oztopo erantsi batekin: kasu askotan, adingabeak inguruan izanda, horien zaintza eta etxetik egindako lana bateragarri egin behar izatea.

Inkestan izandako partaidetza karrerako funtzionariengan handiagoa izan da.

Administrazio-egoera/ Situación Administrativa

186 respuestas



Inkesta multzo hauetan zatitu genuen: Irakasten duten irakasleak, zuzendaritza taldeak eta laguntza zerbitzuetan ari den pertsonala (ikuskaritza, berritzeguneak, EEI, ISE-IVEI, ingurugela...). Emaitzak honako hauek izan dira:

[Itzuli](#)


2 ZUZENDARITZA TALDEA

Lana eta familia bateragarri egitea, egin dizkizuegun galderetatik lehenetariko bat izan da eta badirudi ez dagoela desadostasun handiegirik; gehientxuenek ez duzue arazo gehiegirik izan irakasbidea eta familia bateragarri egiteko. Gogoratu, 1ak zera adierazten zuela: bateratzea erabat ezinezkoa zela eta puntuazioa zenbat eta altuagoa izanda, berriz, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea errazagoa izaten ari zitzazuela.

Parte hartu dutenen % 57,9k oso puntuazio handia ematen dio 7-9 artean; % 31k nahiko justua edo gutxiegia ematen dio lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko arazoa dela eta.


Familia eta lanaren kontziliazioa/ Conciliación de la vida familiar y laboral

19 respuestas



Zuzendaritza taldearen ezagutza digitalak ez dira komunikaziorako eta ikastetxeko proiektuetarako arazo izan. Ezagutza digitalei dagokienez, zuzendaritza taldeetatik ia % 85ek 7 eta 10aren artean kokatu zarete eta, 6 batekin kalifikatu zaretenak erantsiz gero, ia % 90ra iritsiko ginateke. Dena den, arazorik handiena jarduera prestatzeko zailtasun mailan egon da: Inkesta egin duen % 63,10ek dio informazioa jasotzeko bideak hain direla askotarikoak ezen ikastetxe bakoitzarentzat aproposena zein den erabakitzen denbora asko galtzen dela. Arazo hauei beste batzuk gaineratzen zaizkie, hala nola, irakaskuntza eta administrazio jarduera prestatu eta gauatzeko etxeko esparru urria eta baita bi jarduera horiek burutzeko *on line*-ko baliabide pertsonal eskasak, ikastetxeean inolako plataforma digitalik ez dagoelako.

Zure jarduera prestatzeko zailtasun-maila/ Grado de dificultad en la preparación de tu actividad
19 respuestas




Ikastetxeekiko komunikazioak maiz eman dira: egunero, inkestatuen % 94,7tan eta, astean bitan edo hirutan, gainerakoan.

Irakasleekiko eta ikasleekiko maizago erabilitako komunikabideak honako hauek izan dira:

1. *email*-a
2. bideokonferentziak
3. telefonoa.
4. *Whatsapp*-a

Ikastetxearekin duzun komunikazioaren maiztasuna adieraz ezazu/ Indica la asiduidad de comunicación con tu centro

19 respuestas



[Itzuli](#)

3 LAGUNTZA ZERBITZUAK


Lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteak ez dio talde honi arazo handirik sortu, % 100ek ez duela arazorik edo arazo handiegirik izan erantzun baitu. Ezagutza digitalei dagokienez ere, ez da inolako arazorik izan. Izan ere, %100ek 7 eta 10aren artean puntuatun baitu. Jarduera burutzeko zailatasun mailari dagokionez, gehienek ez dute arazorik izan edo arazo txikiak, baina % 43k arazoren batzuk izan ditu. Honakoak, hain zuzen ere:

- Saisetik edo Zuzendaritzatik agindu garbiak ez izatea.
- Zenbait artxibategi eta tresna eskueran ez izatea.
- Zalantzak konpontzeko erreferentziarik ez izatea. Tutorialekin lan egitea oso zaila da.

Ia %100etan, ikastetxeekiko komunikazioaren maiztasuna egunerokoa izan da.

Ikastetxearekin duzun komunikazioaren maiztasuna adieraz ezazu/ Indica la asiduidad de comunicación con tu centro


8 respuestas



Komunikatzeko orduan, ia paretsu bide ezberdinak erabili dira.

Zer bitarteko erabili duzu ikasleekin komunikatzeko?/ ¿Qué medio has utilizado para comunicarte?

8 respuestas



[Itzuli](#)


4 IRAKASLE ZUZENeko IRAKASLEAK

Lana eta bizitza pertsonala bateratze gaia egin dizuedan galdera lehenetariko bat izan da eta badirudi, etheen arabera, desadostasun handiak daudela. Gogora dezagun 1ak gure lana bateragarri egitea ia ezinezkoa zela adierazten zuela. Aitzitik, puntuazioa zenbat eta altuagoa izan, lan eta etxeko bizitza bateragarri egitea errazago ematen ari zela.

% 38k puntuazio altua ematen du, 8 eta 10en artean. Baina, % 34,8ak bateratzeak sortzen dieten oztopoa dela eta, justu-justu ongi bat edo gutxiegi bat ematen du.

Familia eta lanaren kontziliazioa/ Conciliación de la vida familiar y laboral


158 respuestas



Irakasleen ezagutza digitalen maila ez da eskola telematikoak emateko oztoporik izan. Irakasleen ia % 60, ezagutza digitalei dagokienez, 7 eta 10aren artean kokatu zarete eta 6 batekin kalifikatu zaretenak erantsiz gero, irakasleen ia % 85era iritsiko ginатеke. Dena den, irakasteko oztopo maila beste upeleko sagardoa izan da: inkestatuen % 40,8rentzat klaseak telematikoki ematea askozaz ere zailagoa da. Hauek dira horren arrazoi nagusiak: on line-ko materialak eta baliabideak aurkitzeko zailtasuna eta lan horretan ematen den denbora. Zailtasun horiei beste batzuk gaineratu behar zaizkio, hala nola, trebetasun digital urria, ikasleekin konektatzeko orain arte erabili ez genituen aplikazio eta plataforma berriak aurkitu berri izana edo, irakasleentzat zein ikasleentzat, konexioek sortutako arazoak. Egoerari egokitzeko, metodologia aldatu behar izan da, anbiguotasunak saihesteko argibideetan zorrotz izan, ez baikaude fisikoki ikasleen ondoan; ildoak falta izan dira irakasleentzat, kontsultarako materialak ikastetxean zeuden,... Eta, hau gutxi balitz, erabat praktikoak diren klaseek aipamen berezia merezi dute. Labur esanda, askori eguneko orduak falta zitzaizkien materialak aurkitu, egokitu eta irakasteko. Klaseak prestatzea lan saiatuagoa izan da.

Klase telematikoak emateko zailtasun-maila/ Grado de dificultad en la impartición de las clases telemáticas

157 respuestas



Ikastetxearekiko komunikazioak maiz eman dira: egunero, % 42,7tan eta, astero, % 33,8tan.

Klaseak prestatzeko bereziki erabilitako materiala aplikazio telematikoetatik bildu da (% 80), baina, logikoki, material inprimatuaz ere baliatu da. Hirugarren baliabidea, liburutegi birtualak izan dira. Gutxi izan dira, bere material propioa landu dutenak, agian astirik gabe ibiltzeak eraginda. Eta oso gutxi dira ere (% 0,6) bideotutorialak landu edo zuzenean irakatsi dutenak.

Ikasleekin komunikazioa ezartzeko gehien erabili diren komunikabideak honako hauek izan dira:


1. *email-a*
2. bideokonferentziak
3. telefonoa
4. *whatsapp-a*

Moodle edo *Drive* ez dira gehiegi erabili eta ehuneko txikia jaso dute inkestan (% 0,6).

Inkestaturen % 69,6k ez ditu ebaluazio probak edo autoebaluazioak egin, baina garrantzitsua da bere ikasleen *feedback*-a lortu dutela nabarmentzea.


Egin al duzu ebaluazio- edo autoebaluazio-probarik?/ ¿Has realizado pruebas de evaluación o autoevaluación?

158 respuestas



Ba al dago Feedbackik zure ikasleekiko komunikazioan?/ ¿Hay Feedback en la comunicación con tu alumnado ?

157 respuestas




Irakasleen % 67,5ek ikasleen % 10 o de gutxiago du konektatzeko biderik gabekoa. Horrela esanda, ez dirudi txarra denik, baina sakonago aztertuta, honek esan nahi du irakasleen % 13,4k gelaren erdia baino gehiago konexio digitalerako sarbiderik gabe duela eta kopuru hori % 32,5era iristen da gehitzen badiogu baliabide digitalik ez duen ikasleen % 10 eta % 50aren artekoa.

Zer ikasle kopuru esango zenuke ezin dela digitalki konektatu?/ ¿Qué porcentaje de alumnado dirías que no puede conectarse digitalmente?




157 respuestas



Baliabide digitalak ez dituzten ikasleen kasuetan, erabilitako komunikabide ohikoenak gurasoen *e-mail*-a eta telefonoa izan dira. Baina, gurasoen % 7,9k materiala jasotzeko pertsonalki ikastetxetik pasa dira.

Azpimarratu behar da ere, baliabide digitalak dituzten ikasleetatik gehienak, oro har, irakasleek emandako argibideen arabera konektatu direla (data, ordua,...): % 68,9; argibideak jarraitu ez duen % 31,1aren aurrean. Ondorengo grafikoan, ikasleek izan duten klaseen jarraipen maila zehazten da: 1ak klaseak jarraitzen ez zituela adierazten du eta 10ak, berriz, jarraipen osoaren maila, gelako irakaspenaren baliokide:



Ikasleek azaldutako oztoporik nagusienak, orden honetan, ondorengo hauek izan dira:

1. irakasleekiko distantzia (% 54,5)
2. ulermena (% 44,2)
3. jarrera (% 40,3)
4. formatu digitala (% 38,3)

Nabari geratzen da irakasleen presentziaren garrantzia. Erantzunek, behin eta berriro, ikasleei ere klase birtualek zailtasunak ekarri dizkietela frogatzera garamatzate: irakasleekiko distantziak ulermen arazo handiagoak izatera daramatza ikasleak eta baita gelako klaseetan baino jarrera okerragora ere. Eta horri, gainera, beste zenbait faktore gehitu behar zaizkio, hala nola, formatu digitalak dakarkien zailtasun handiagoa, erantzukizunik eza, ikasteko erritmo galera, arreta pertsonalaren beharra, autonomia falta, laguntzen ez duen familiaren egoera edo lan kopuru gehiegi.

Hitz batez: irakasleei klaseak prestatzea neketsuagoa gertatzen zaie eta ikasleek ez dute klase presentzialetan bezain arreta jartzen, eskatzen zaizkien lanei erantzun arren. Logikoki, konfinamenduan gurasoak/tutoreak betetzen ari diren paperak ere eragiten du. Beraiei buruzko zuen iritziak zatituago daude: beren seme-alaben lanei buruzko jarraipena handiagoa, txikiagoa edo ohiz bezalakoa den eta gurasoekiko zuen komunikazioak maiztasun berean, handiagoan edo txikiagoan jarraitzen dutenari buruzko 3 galderak paretsu geratu dira; dena den, COVID-19arengatik konfinamendu egoeraren aurretik gurasoek erakusten zuten ardura eta irakasleeiko komunikazioa eta oraingoa antzekoa delako iritziak irabazten du.


[Itzuli](#)

4.1 HAUR HEZKUNTZA

Erantzunetatik erdia 1go. zikloari dagokio, heren bat 2. zikloari eta, gainerakoa, 3. zikloari.

Adierazi zein hezkuntza-etapatan ematen dituzun eskolak/ Indica la etapa educativa en donde impartes las clases


6 respuestas



Familiekin komunikatzeko modua askotarikoa izan da, e-maila erabilienean, ondoren telefonoa eta *wasap*-a.

2. Zein da gurasoekin edo tutoreekin komunikatzeko biderik ohikoena?/ ¿Cuál es la vía de comunicación más habitual con los padres, madres o tutores? ?


6 respuestas



% 100ek familiekin beren oharpenak jarraitu dituela erantzuten du. Baina, agindutako lana helduek izan duten ulertzeko izailtasunari buruz galdetzean, erantzunak askotarikoak izan dira.

Oro har, helduek badute hizkuntza-zailtasunik agindutako lana ulertzeko?/ En general, ¿tienen los adultos alguna dificultad lingüística para comprender la tarea encomendada?

6 respuestas



Irakasleen gehiengoak (% 66) ikasleen ikasketa prozesuari buruzko informazioa eskatu die familiei.

Beharrak eraginda, irakasle guztiek baliabide didaktiko, metodologiko berriak,... bilatu behar izan dituzte.

Batzuren ustez, ikasle hauekin telematikoki aritzea lan nekeza da; dena den, beste zenbaitentzat koordinatu eta ikasteko aukera izan da.


[Itzuli](#)

4.2 LEHEN HEZKUNTZA

Irakasleen espezialitateari buruz galdetzean, 4 espezialitateri buruzko erantzunak jasotzen ditugu. Lehen Hezkuntzako % 66,7, ingeleseko % 22 eta, gainerakoa, musika eta erligiokoa. Lan egiten duten zikloari dagokionez, 3 zikloetako proportzioa ia beretsua da.

Adierazi zure lanpostuaren espezialitatea/ Indica la especialidad de tu plaza


18 respuestas



Programazioa jarraitzeko zailtasunaz galdetzen denean, gehienek zailtasun gutxi dutela edo batez erantzuten dute, baina % 38k arazo asko izan du.

Programazioa jarraitzeko zailtasunak dituzu?/ ¿Tienes dificultades para seguir la programación?

19 respuestas




Baliabideei dagokienez, lautatik hiruk EZ du Hezkuntza Sailek gomendutako baliabideak erabiltzen.

Irakasleen erdiak baino gutxiyeagok ebaluazio probak egin ditu. Gehienek testak erabili dituzte. Gainditu ezean, % 71k beste jarduerak egiteko aukerak eman ditu.

Ebaluazio-probak egiten badituzu, adierazi zer modalitate erabiltzen dituzun/ Si realizas pruebas de evaluación indica qué modalidades utilizas

7 respuestas




Familiekin komunikatzeko orduan, erdiaren baino gehiagok (% 58) behar denean egiten du, % 21 egunero eta beste % 21a astean behin.

Familiek beren seme-alabei laguntzeko zandako arazoei dagokienez, erantzunak askotarikoak dira:

Balora itzazu familiekin seme-alabei laguntzeko dituzten zailtasunak/ Valora las dificultades que crees que tienen las familias para ayudar a sus hijos e hijas

19 respuestas



Bukatzeko, parte hartu dutenek izan dituzten zailtasun ezberdinak azaldu dituzte:

- Saitetik eta Berritzegunetatik laguntza txikia.
- Ikasle txikien autonomia urria.
- Laguntza emateko familien oztopoak (hzkuntza, prestakuntza, ordenagailuak, e-mail-a)


[Itzuli](#)

4.3 DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Irakasleen espezializatari buruz galdetzean, zera ikusten dugu: erantzun gehienak ondorengo espezialitateetatik datozela: Matematika % 14,5, Fisika eta Kimika % 13, Gaztelera eta Espainiako Literatura % 14,5, Geografia eta Historia % 13 eta Ingelesa % 10,1.

Adierazi zure lanpostuaren espezialitatea / Indica la especialidad de tu plaza


69 respuestas



Inkestatuen ia erdiak Berritzegunetatik aholkularitza jaso duela dio, baina beste erdiak kontrakoa dio.

Berritzeguneen aholkurik jaso al duzu? / ¿Has recibido asesoramiento de los Berritzegunes?

67 respuestas



Berritzegunetatik jasotako aholkularitza era honetakoa izan da:


1. Materialak
2. Lan teknikak.
3. Euskarri telefonikoa eta/edo e-mail-a.

Baina inoiz ez ebaluazio probarik.

Sailak aurreikusitako ebaluazio irizpideez galdetuta, % 58,6k ziurtatzen du inkesta pasa zen datan ez zegoela ezer erabakita eta % 41,4ak, berriz, ebaluazio irizpideak ezarri direla dio.

Zure sailak gutxieneko ebaluazio-irizpide batzuk ezarriko al ditu eskola presentzialetara itzuli ezean?/ ¿Va a establecer tu departamento unos criterios minimos de evaluación para el caso de no volver a las clases presenciales?


70 respuestas



% 20,3k dio pozik dagoela Hezkuntza Ikuskaritzatik jasotako laguntzarekin, % 35,6k, berriz, kontrakoa. Gainerako % 44ak ez du bere ikastetxean Ikuskaritzaren betekizuna ezagutzen.

Pozik al zaude zure ikastetxeko Hezkuntza Ikuskaritzaren laguntzarekin?/¿Estás satisfecho o satisfecha con el apoyo de la Inspección Educativa de tu centro?


59 respuestas



% 24,1ek dio pozik dagoela Hezkuntzak emandako erregistro txantiloiekin; % 43,1ek, berriz, kontrakoa dio. Gainerako % 33ak arrazoi ezberdinengatik ez daki zer den hori.

Pozik al zaude Hezkuntzak emandako erregistro-txantiloietan zure lana justifikatzeko moduarekin/ ¿Estás satisfecho o satisfecha con la manera de justificar tu trabajo en las plantillas de registro aportadas por Educación?

58 respuestas



Hezkuntza etapa honetako irakasleen balorazioei dagokienez, oro har, zentzu bereko iritziak jaso ditugu. Ondorengo hauek narbarmendu ditzakegu:

- Plataforma digitalen bidez, lan metodologia berriari egokitzeko zailtasunak, irakasleengan zein ikasleengan.
- Zenbait ikasleri baliabideak falta zaizkie.
- Berritzeguneen, Ikuskaritzen eta baita Ikastetxeen aldetik laguntza falta.
- Ebaluazio prozesuengatikako kezka, gehienbat DBHko 4.ean eta BATXILERGOAN.
- Ohiko lanaldiarekin erkatuta lan kopurua gehitu egin dela, % 100eraino. Irakasle askok diote egunean 10 ordu inguruan aritu direla lanean.
- Irakasleek egindako lana eta esfortzua aitortzeko beharra.
- Teknologien erabilerari dagokionez, irakasleen aldetik autokritikaren beharra, irakaskuntzako ohiko jardueretan nahiko denbora indarrean daudenak.


[Itzuli](#)

4.4 LANBIDE HEZIKETA

Erantzunak, espezialitateen aniztasuna dela eta, askotarikoak eta konplexuak izan dira. Izan ere, LPO, Administrazioa edo Diseinua bezalako zikloak baliabide telematikoen bidez burutu baitaitezke. Gauza bera zikloen gainerako modulu teorikoekin, hasiera batean arazo gutxiago ematen baitute telematikoki irakasteko. Ondoren, espezialitateen aniztasuna ikus daiteke:

Adierazi zure lanpostuaren espezialitatea/ Indica la especialidad de tu plaza

32 respuestas



Modulu praktikokoak irakasteko zailtasunari dagokionez, % 67,7k dio guztiak ezin daitezkeela telematikoki irakatsi.

Uste duzu modulu praktikokoak (tailerra) modu telematikoan eman daitezkeela?/ ¿Crees que los módulos prácticos (taller) se pueden impartir de forma telemática?

31 respuestas



Modulu teorikoetan, dena den, % 77,4k ez du arazorik izan; gainerako % 22,6ak, berriz, bai.

Gehien erabilitako plataforma, *Drive* izan da % 78,1; ondoren, *Moodle* % 31.3. Gainerako plataformak urrutiago geratzen dia: *Classroom* % 9.4, *Kahoott*, *Hangouts*, *Email*, % 3.1.


Ikasturtea baliabide telematikoz bukatzeari dagokionez, % 56,3k ez du egingarri ikusten; gainerako % 43.7ak, berriz, posible dela uste du.

Modulu praktikoen bidez ikasturtea luzatzeari buruz, % 65,5 alde azaltzen da; beste % 34.5a, berriz, kontra.

LZP (Lan Zentroetako Prestakuntza) modulua egokitze bideragarritasuna bezalako gai garrantzitsuari dagokionez, inkestatuen % 40,6k irailera atzeratuko luke, % 28,1ek dagozkion orduak gutxitzea aukeratuko luke eta gaineroak udaran egitea, telelana erabiltzea edo beste aukerak proposatzen ditu.

Zein izango litzateke zure proposamena lantokiko prestakuntzei bideragarritasuna emateko?/ ¿Cuál sería tu propuesta para dar viabilidad a las FCT?

32 respuestas



Erronka bidezko ETHAZI metodologiari dagokionez, % 68,8k berarekin jarraitu du eta beste %31,9ak, berriz, ez.

Zikloko gainerako irakasleekiko komunikazioari dagokionez, % 87,5 koordinatu egin da; gainerako % 12,5a, berriz, ez.

Ondoren, etapa honi buruz atentzio handiagoa eman dizkiguten iritziak azaltzen dizkizuegu. Gehienek zera nahi dute: ikasturtea ez luzatzea, ikasleentzat izango litzatekeen desgaste psikologikoagatik eta, kontuan izanda, ikasleen zati batek USE egin nahi duela Unibertsitatean matrikulatu ahal izan edo lehenbailehen lan munduan sartzeko. Edukiei dagokienez, irakasleek uste dute lehen mailakoekin egokitzapenak egin beharko direla 2020-2021eko ikasturtearen 2. mailako programazioetan. Ondoren, guretzar garrantzitsuenak diren iritziak azaltzen dizkizuegu:

- Lanbide Heziketan, oraindik modulu teoriko eta praktikoetan bereizi arren, ezberdintasun hau gero eta zehaztugabea da eta modulu guztietan derrigorrezkoa da praktikak burutzea, edukiak zuzen ulertu eta asimilatu ahal izateko. Dena den, irakasleek eta ikasleek, telematikoki jardutean egindako esfortzu handiak ez du gomedatzen lan kopurua gehitzea, ikasturtea luzatuz, honek ekarriko lukeen desgaste psikologikoagatik.
- Irudimena eta egin daiteke, baina zalantzak ditut zenbait ziklotan praktikarik gabe zerbait egin daitekeen (adib. Automozioan). Agian, hurrengo ikasturtean edukiak sartzea.
- Lehen mailako eduki praktikoak, agian, 2. mailako programazioara egokitu daitezke.
- Bigarren mailako ikasleak LZPn harrapatu ditu. Ez dut iritzi garbirik nola konpon daitekeen, zenbait ikasle USEra joan nahi baitute, Unibertsitatera sartzeko. Irailean egiteko aukerak ez du ikasle guztientzat balio.
- Zenbait ikaslek lehenbailehen bukatu nahi dute, bere premiazko behar ekonomikoagatik lanean hasi nahi dutelako.
- Preentziala ez izateak sortzen dituen zailtasunak direla eta, kudeatzen ari naiz materia teorikoari praktikoari baino denbora gehiago eskaintzea. Kontua zera da: eguneroko jarduera bat mantentzea, ikasleak lasaitu eta motibatuz. Ikusten dituzten tutorialak sozietate kosmetikoenak dira, teknika berriak azaltzen dituztenak, oso ongi adieraziak; honek aurrerapena dakar.

- Atal praktikoa jorratzen ari gara, ahal den neurrian, garatzen, baliabide informatikoak erabiltzen eta teoriako irakasleekin elkarrekin lan egiten eta, ikastetxera itzultzean, ahal bada, tailerrean proiektuetan ikusitako atal praktikoari ordu gehienak eskaintzea.
- Oro har, gure lanean zirkunstantzia arruntetan baino ordu gehiago sartzen ari gara. Gure “katedra askatasuna” galtzen ari gara neurri handi batean fiskalizatzen baikaituzte.
- Prestakuntza reglatua vs. ez reglatua; Presentziala vs. urrutikoa; ariketak vs. erronkak; gela vs. birtuala; irakaslea vs. internet; irakaslea vs. laguntzailea.
- Atal teorikoa aurreratzen ari gara, gelara itzuli ahal izanez gero, praktikak egiteko.
- Zortea izan dugu ikasturtearen bukaeran egotearekin. Nire kasuan, irailean hutsetik hasita kontabilitatea ematea oso, oso, oso zaila litzateke.
- Garrantzitsua da ikasleei aurpegia ikustea eta, oro har, denok elkarri begiratzea; honek informazio handia ematen baitu.
- Gure ikasleak adinduak dira eta, beraz, autonomoak; baina, nire ustez, gelan gehiago aurreratzen dute. Izan ere, bertan, galde-erantzunak beren artean eta bere irakaslearekin berehalakotasun handiagokoak dira.


[Itzuli](#)

4.5 HELDUEN HEZIKETARAKO IKASTETXEAK

Irakasleen espezialitateari buruz galdetzean, zera ikusten dugu: % 42,9 Alor Zientifiko Teknologikoa dela eta, gainerakoa, ekitatiboki banatzen dela.

Adierazi zure lanpostuaren espezialitatea/Indica la especialidad de tu plaza

7 respuestas




- 1581 - HHE KOMUNIKAZIO ARLOA (GAZTELANIA)/EPA ÁMBITO CO...
- 1582 - HHE KOMUNIKAZIO ARLOA (INGELES)/EPA ÁMBITO COMU...
- 1583 - HHE KOMUNIKAZIO ARLOA (EUSKARA)/EPA ÁMBITO COMU...
- 1584 - HHE KOMUNIKAZIO ARLO...
- 1585 - HHE ESPARRU ZIENTIFIK...
- 1586 - HHE GIZARTE EZAGUERA...
- 0000 - HASIERAKO IRAKASKUNT...

Inkestatutako gehienak irakaskuntza reglatu bietan irakasten dutela ikusten dugu ere.

Eskolak ematen ari zara/ Estás impartiendo clase en:

8 respuestas




- Irakaskuntza arautuak/ Enseñanzas regladas
- Arautu gabeko irakaskuntzak/ Enseñanzas no regladas
- Bietan/ En ambos

Irakasleen ustez, ikasleen % 37,5 bakarrik dago prestatuta digitalki klaseak jarraitzeko; hau oztopo handia da telelanaren erronkari aurre egitean.

Oro har, uste duzu zure ikasleak digitalki prestatuta daudela ematen ari zaren irakaskuntzarekin zailtasunik gabe jarraitzeko?/ En general, ¿crees que tu alumnado está preparado digitalmente para continuar sin dificultad con la enseñanza que estas impartiendo?

8 respuestas




Zirkunstantzia hauetan, ikasleen % 10 eta % 50aren bitartekoek ikasteari utzi diote, kontuan hartu beharreko ehuneko deigarria.

Egoera honetan irakasleen % 37,5ek ezarritako programazioarekin jarraitzea ezinezkoa dela uste du. Eta ehuneko honen, % 75ek ez du estrategia ezberdinen bidez programazio berria burutu.

Irakasle kopuru handi baten ustez, egoera berri honek irakasteko estrategia berriak aurkitzeko aukera eman die.

Aurkitu al duzu irakaskuntza-estrategia berririk?/ ¿Has descubierto nuevas estrategias de enseñanza?

8 respuestas



Hezkuntza etapa honetako irakasleen balorazioei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:


- Asistentzia presentziala oso txikia edo txikia izan duten ikasleek utzi egin dute.
- Ebaluazio prozesua zail bihurtzen da erabat.
- Gelako klaseekiko bezain emaitzak lortzeko lanordu gehiago bete behar dira.
- Irakasle askok telelana baloratzen dute, trebetasun digitalak hobetzeko aukera gisa.

[Itzuli](#)

4.6 HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleek *Drive*-ri eman diote lehentasuna (% 50) eta *Moodle*-ri (% 25) beren klase birtualen plataforma gisa. *Classroom* edo *Meet* ere, positiboki aipatu dira.

Hizkuntzen ikaskuntzari dagokionez, ondoko osagaiok hartu behar ditugu kontuan: ulermena eta ahozko adierazpena, ulermena eta idatzizko adierazpena eta, azkenik, bitartekotza jarduerak, duela gutxi inkorporatu dena. Inkestaren galderek aztertu nahi zuten 5 gaitasun hauetatik zeintzu ziren errazenak edo zailenak, irakasleen ikuspegitik *on line*-z irakasteko orduan zein ikasleenetik, beren ezagueretan aurreratze orduan, klaseak gelatik kanpo jasotzean. Emaizek ez dute zalantzarako betarik utzi: ahozko adierazpena da zailena, irakasteko zein ikasteko. Izan ere, ikasleek, gelan bezala, ezin dezakete beren ikaskideekin hitz egin eta irakaslea ez dago bertan ahoskatze eta gramatika akatsak eta bestelakoak... zuzentzeko. Aitzitik, badirudi idatzizko ulermena dela oztopo txikienak sortzen dituen klase telematikoetan.



Azterketen emaitzak aurreikusteko orduan, irakasleen % 66,7k uste du emaitzak aurrko urteetan baino txarragoak izango direla. Izan ere, klase telematikoekin ikasleak ez dira klase presentzialekn bezain prestatuta izango proba guztiak gainditzeko, arazo hori arindu egingo litzateke. % 66,7 honen aurrean % 33,3ren ustetan, gainditutakoen indizea antzekoa izango da; eta ez dago telelanari esker emaitzak hobek izango direla uste duenik.

Zuen iritzi pertsonalei dagokienez, ikasle batzuren eta besteren arteko konexio eta esku hartze ezberdintasunak azpimarratu beharrekoak dira. Balorazio positibo asko dago ikasleen zati bat erakusten ari den interesari buruzkoa. “Zereginean erne eta tinko” jarraitzen dutenen jarrera eta *feedback* positiboa eskertzen duzue baina, baita aitortu asko ez direla konektatzen. Arrazoi nagusiak hauek dira: ikasleek, ikasle direnez, bere ikasketa nagusiei eutsi behar dietela edo familia zamak dituzten helduek egoera honetan ez dutela klaseetara konektatzeko astirik. Egoera bestelakoa izan balitz, haurrak eskolara doazelarik, ohiko betekizunak eginda eta etxekoen zaintzaz arduratu gabe, ikasteari eutsiko zion ikasle kopurua handiagoa izango zatekeen, nahiz eta *on line*-z egin. Kontziliazioa, gauetik goizera gure bizkarrera etorri zaigun aurreko desmotibazioa edo, baliabide informatikoak ez izanagatik, klase presentziala eta ez digitala aukeratu zuten ikasleen arazo digitalek zenbait ikasle klaseak uztera bultzatu ditu. Dena den, *on line*-z emandako prestakuntzari buruzko azalpenak, oro har, positiboak izan direla aipatu behar da eta uste dugu, trebetasun digitalak, orokorrean, sustatu egin behar direla, eta, are gehiago hezkuntzaren alorrean.


[Itzuli](#)

4.7 MUSIKA KONTSERBATORIOAK

Irakaslearen espezialitateaz galdetzean, ondorengo espezialitateetako irakasleek kopuru paretsuan erantzun dute: Kontrabaxua, Kantua, Pianoa, Biolina, Biolontxelo eta Biola.

Adierazi zure lanpostuaren espezialitatea/ Indica la especialidad de tu plaza

6 respuestas



- 0801 - PIANO/PIANO
- 0802 - BIOLINA/MOLÍN
- 0803 - BIOLONTXELOA/MOLONG...
- 0804 - HARPA/ARPA
- 0805 - KITARRA/GUITARRA
- 0807 - BIOLA/IOLA
- 0808 - KONTRABAXUA/CONTRA...
- 0810 - OBOEA/OBOE


▲ 1/5 ▼

Gehienbat erabilitako plataforma digitala *Drive* izan da. Nahiz eta beste batzuk ere, hots, *Meet*, *One note*, *Youtube*, *Skype* edo *Hangouts* erabili ohi diren.

Irakasleen % 60k uste du modulu praktikoak (musika tresnak) telematikoki eman daitezkeela.

Uste duzu modulu praktikoak (tresnak) modu telematikoan eman daitezkeela?/ ¿Crees que los módulos prácticos (instrumentos) se pueden impartir de forma telemática?

5 respuestas




- Bai/ Sí
- Ez/ No

Ikasle kopuru garrantzitsu batek uste du, baliabide telematikoak erabilia eta progrmazioa jarraituta ikasturtea buka daitekeela.

Ikasturtea amaitu al daiteke baliabide telematiko horiek erabiliz programazioa betez?/
¿Se podría finalizar el curso cumpliendo la programación utilizando estos recursos telemáticos?

6 respuestas



Hezkuntza etapa honetako irakasleen balorazioei dagokienez, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- Kontserbatorio gaiari loturiko gaietan bereziki telelanaren jardura nekeza eta konplexua egiten da, irudia eta soinua oso eskasak direlako.
- Arazo teknikoak direla medio, ezinezkoa da taldekako musika tresnetako klaseak ematea, baita ganbera-musikakoak eta korukoak ere (*delay*, konexioaren kalitate txikia). Egoera hauetan banakako beste lan mota egin da.
- Zenbait kasutan lana audioak/bideoak gainbegiratzera mugatzen da.
- Ikasleak, derrigorrezko irakaskuntza dela eta, lanpetuegiak daude.
- Telelanak ikasle eta irakasleak esfortzu eta arreta handiagora behartzen ditu.
- Irakasleek diote beren baliabideen % 110 erabili dutela eta, gainera, egoera honi aurre egiteko, tresna gehiago eskuratu dituztela, baina ezinezko lana izan dela. Gaineratzen dute, egoera hau ikasturte hasieran emanez gero, kaosa izan eta ikasturtea ia galdutzat emango zela.

- Sailak ez du lan mota hau burutzeko baliabiderik, eta irakasleek teknologia gaietan eguneratuta daudenari esker, espero bezala egon dira. Hezkuntzatik eman diren baliabideengatik izan balitz, ikasleen % 100 jaramonik egin gabe geratuko lit<ateke.
- Beharrezkoa da, baliabide telematikoez hornitzea (portatilak, Internet...), irakasleak zein ikasleak, plataforma digitalen bidez, lan metodologia berriei egokitzeko.

[Itzuli](#)


4.8 ENTZUMEN ETA HIZKUNTZA

Inkestatutek 33- eta 100 arteko ikasle kopuruarekin egiten dute lan.

Irakasleen % 100ek bere lan agendan ezarritako koordinazio bilkura kopuru berbera mantentzen du.


Oro har, kontsultariaren laguntza ona edo oso ona izan da.

Zalantzak edo arazoak izan dituzunean lagundu al dizu kontsultoreak?/ Cuando has tenido dudas o problemas, la consultora o el consultor te ha ayudado




Oro har, irakasleak ikasleekin lanean ari direnean, gehienekin nekez komunikatzen dira eta zaila da ariketak azaldu eta esplikatzea.

Ikasleekin lanean ari zarenean, gehiengoarekin (% 75 edo gehiago) zailtasunik gabe komunikatu eta azaldu dezakezu ariketa/ Cuando estás trabajando con tu alumnado, con la mayoría (75% o más) puedes comunicarte sin dificultad y explicar el ejercicio



Era berean irakasleak ikasleekin lanean ari direnean, hauetako gehienek arazoak dituzte agindutako ariketak burutzeko.


Ikasleekin lan egiterakoan, gehiengoak (%75 edo gehiago) agindutako ariketak zailtasunik gabe egiten ditu/ Cuando estás trabajando con tu alumnado, la mayoría (75% o más) realiza los ejercicios propuestos sin dificultad



Ikasleekin lan egin ezin izan denean, irakasleen % 50ek tutorearengana jo du, arazoari irtenbidea emateko xedez.

Irakasleen % 50ek dio ikastetxearen zuzendaritzak beraiekin harremanetan jarri dela, lanean nola ari zen jakiteko, beste %50ak, berriz, inoiz ez dela barekin harremanetan jarri baietsi du.

Nire ikasleen ikastetxeko zuzendaria nirekin harremanetan jarrida, nola ari naizen lanean jakiteko/ La dirección de los centros de mi alumnado, se ha puesto en contacto conmigo para saber cómo estoy trabajando



Etapa honetako irakasleen balorazioei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:

- Irakasleei exijitzen ari zaie etxeko lan gehiegi bidalaraztea unerik egokiena ez dirudienean; interesgarriagoa litzateke malgutasunez jokatzea, irakasleek jarduera ludiko eta motibagarriagoak bidal ditzaten.
- Une egokia litzateke ere aprobetxatzeko Entzumen eta Hizkuntzako Maisuei prestakuntza emateko.
- Lan zama izugarria izaten arida, 10-12 lanorduekin.


[Itzuli](#)

4.9 PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA

Inkestatuak 5-11 arteko ikasleen kopuruarekin ari dira lanean.

Irakasleen % 33,3k bere lan agendan ezarritako koordinazio bilkura kopuru berbera mantendu du, beste % 66,7ak, berriz, ezin izan du bere agenda mantentzea.


Zure lan agendan ezarritako koordinazio bilera berdinak al daukazu kontsultorearekin?/ ¿Tienes las mismas reuniones de coordinación con la consultora o el consultor establecidas en tu agenda laboral?



Oro har, zalantzak izan dituenak kontsultariaren laguntza jaso du, laguntza bikaina, gainera.


Irakasleak ikasleekin lanean ari direnean, gehienekin arazorik gabe komunikatzen dira eta nahiko erraza da arietak azaltzea, bakarren bat salbu.

Ikasleekin komunikatzen bazara, gehienekin (%75 edo gehiago) zailtasunik gabe egin dezakezu eta ariketa esplikatuz/ Si puedes conectarte con tu alumnado, con la mayoría (75% o más) puedes comunicarte sin dificultad y explicar el ejercicio



Era berean, irakasleak ikasleekin lanean ari direnean, ikasle gehienek proposatutako arietak burutzen dituzte arazo handirik gabe, bakarren bat salbu.

Ikasleekin komunikatzen bazara, gehienek(%75) edo gehiago) arietak zailtasunik gabe egiten dituzte./ Si puedes conectarte con tu alumnado, la mayoría (75% o más) realiza los ejercicios propuestos sin dificultad



Hezkuntza etapa honetan ez dago irakasleen balorazio aipagarririk.

[Itzuli](#)

4.10 ARTE PLASTIKO ETA DISEINUKO ESKOLAK


Ez zaio inkestari erantzunik eman.

[Itzuli](#)

5 ONDORIOAK

Nola baloratuko zenuke telelanarekin duzun esperientzia?/ ¿Cómo valorarías tu experiencia con el teletrabajo?

187 respuestas



Telelanarein izandako esperientzia baloratzean, iritziak askotarikoak dira: batzuk, 1eko puntuazioa ematen diote, baina badira 10 ere emango lioketenak. Ehunekoetan, % 18,7k gutxiegi batez baloratzen dute; % 19,8k 5eko jusju-justua ematen diote. Puntuazioa 6raino joz gero, % 55,6 ematen digu; hau da, irakasleen erdiak baino gehiagok telelanaren esperientzia ez du begi onez ikusten, gainerako % 44,4ak, berriz, 7tik gorako puntuaketa ematen diolarik.

Komentatu dituzuen iritziak bat datoz oro har. Telelanarekin gelako irakaskuntzarekin baino ordu gehiago eskaintzen zaizkio irakasteari. Zenbait kasutan, gure afiliatuek diote, saioak prestatzen, teknologia berriak ikasten, posta elektronikoei erantzuten emandako orduekin, *on-line*-z materialak bilatzen, lanorduak hirukoiztu egiten direla. *Full-time* egiten da lan, 24 ordutan lanerako prest eta, askotan, bizitza pertsonala eta laborala bateragarri egiteko oztopo handiak izaten dira, adin txikikoak edo mendeko helduak zaintzea dela eta. Eta kontua da, ikasleen erantzunak, zenbaitetan, konpentsatu ez eta frustrazioa eragiten duela. Ikasleen arazorik handienak honako hauek dira: baliabideen falta, familien maila sozioekonomikoari lotuta, edo teknologia berriak erabiltzen ez jakitea eta lan nekeza da ikasleak berriro klaseko girora lotuaraztea. Zuetako askok estresa, nekea eta frustrazioa aipatu duzue. Aparteko esfortzu handia izan da, lana biderkatu egin delako eta gehien errepikatzen diren izenlagunak “nekagarri” eta “bukaezina” dira.

- Telelanak ezagutza digitalak garatzeko aukerak ematen dizkie ikasleei, ordura arte landu ez zirenak; hori, etorkizunerako onura handikoa izango da eta, gainera, ikasmailetak *curriculum*-ean ez dauden ezagutzak dira. Baina, bestalde, ikaskuntza prozesuari gehitzen zaion oztopoa da, gaitasunak eskuratzea moteltzen duena. Irakaspen presentzialak alderdi guztietan aberasgarriagoak baitira. Zenbait pertsonentzat erabat garbi geratu da eskola presentzialak nahitaezkoak direla, zenbait mailatan bereziki (adingabekoentzat zein adinez nagusiagokoentzat batez ere modulu praktikoetan; are gehiago zailtasunak dituzten ikasleentzat, hauek ez baitute errendimendu berbera pantailaren beste aldean daudenean). Arreta berezia eman behar izan zaio saioen dinamismoari, ikasleak deskolgatu ez eta, egunez egun, arreta mantentzeko.
- Gehiago errepikatu diren kexak metodo berrienganako egokitzapen prozesuari dagozkio, gertaeren garapena dela eta, egokitzaten hori ez baita existitu. Gauetik goizera, alde aurretik inork jakinarazi gabe, baliabide telematikoetara egokitu behar izan dugu, prestakuntzarik gabe eta tresna eta baliabidez hornitzeke. Zuen iritzietan zenbaitzuk eskertu egiten dituzue ikastetxeetako PREMIA edo IKTetako arduradunak.
- Behar bezala baloratu ez izanagatik, bere gaitasun digitala garatu ez duen ikaslearekin zerikusia duten egoeraz kezka handia dagoela ikusten dugu; eta garbi dago gaitasun digitala zenbaitetan irtenbide izan daitekeela. Gaitasun digitalaren garapena eskubide da baina baita betebeharra ere. Digitalaren eta presentzialaren arteko oreka puntua bilatu behar da eta, irakasleen prestakuntzan inziditu, benetako gelan zein gela birtualean funtzionatu eta gaitasunen garapenean eragiten duten jarduera hezigarrien diseinatzaile gisa. Oro har, gehienok inprobisatu egiten dugu (ikasleek zein irakasleek). Egin ahala ari gara ikasten eta emaitzak apalak izango dira. Dena den, Administrazioak zein irakasleok, badaukagu zeri buruz hausnartu. Hausnarketa honek lagundu dakiguke irakaskuntza presentzialaren ordezkazetarako alderdiak baloratzen eta, ziuraski, alor digitaleko gure gaitasun praktikoa hobetuko dugu.
- Aukera ezin hobea daukagu ikasteko era berria kudeatzeko eta beharrezkoa da egoera honek ekarri digun ikasteko programa berriei buruzko hausnarketa sakona. Egunez egun eraberritzen aritu gara; lortu dugu ikasleen zati handienak egunero konektatzea; telelana bihurtu beharko litzateke modalitate sustatu eta garatuan, ikastetxeetan inbertsioa izango lukeena; inbertsioa, irakasleen prestakuntzan zein baliabideei dagokionetan.

- Orain, esperientzia honen alderdi positiboenetan zentratuko gara. Lehen urratsak konplikatuagoak izan dira baina, pixkanaka, esperientzia gero eta errazagoa izan da. Funtzionatzen ari bada, irakasleek burutu duten esfortzu handiagatik da (sekula baino azkarrago auto-prestatzeko eta gure etxeetan beharrezko tresnak lortzen saiatzeko) eta baita ikasleen esfortzuagatik ere. Irakasleek, arazo handirik gabe, bere prestakuntza jarraitu dezakete, betiere etxean baliabide telematikoak izanez gero eta, eskerrak irakasle eta ikastetxe asko egokitzen honetarako prestatuta zeudela. Oztopoak egonda ere, lan egiteko beste era aurkitu dugu eta honek beste beharrak eta arazoak detektatzeko aukera eman digu, ikasleengan zein irakasleengan. Esperientzia berri batean bihurtu da zeinetik beti ikasten den, nahiz eta irakasleekiko harreman fisikoa eta ikasten den bitartean bere aurpegiera ikustea ordezkatzeko ez duen.
- Norbaitek esan digun bezala: “prestakuntzarik, heziketarik edo jarraibiderik gabe, irakasleok gai izan gara malabarismoak egiteko”, betiere gure ikasleen onurarako. Hezkuntza profesionalen erantzuna askotan ezin hobea izan da. Orain azken zatia geratzen zaigu: ebaluazioa eta balorazioa, eta berari buruzko irizpideak bizi izandako egoerara egokitu beharko dira.

Bukatzeko, zuetako batek inkestan txertatu duen esaldia aipatu nahi dugu, **Educación en el encierro** titulua duen artikulutik eratorria:

"Ez dago, egunero ikasle talde baten aurrean egon eta benetan zerbait ikasi dutenean beren aurpegia ikusteko sentsazioarekin, lehiatu dezakeen progamarik".